

# Haitira bisita - Caritas Gipuzkoa

2015eko urria

Joseé Ramón Aramendi

Koldo Muro



Urriaren 1etik 8ra, José Ramón Aramendik, Caritas elkarteko zuzendariak, eta Koldo Murok, Nazioarteko Lankidetzaren arloko arduradunak, hainbat proiektu bisitatu zituzten, lurrikara izan zenetik elizbarrutiko Caritasek bultzatu dituenak. Hain justu ere, lurrikara 2010ean izan zen, 200.000 hildako baino gehiago eragin zituen, eta herrialdea kolapsatu zuen.

## BIDAIAREN XEDEAK

- Lurrikarak duela 5 urte suntsitu zuen herrialdearen egungo egoera ezagutzea.
- Haitiko hainbat eremutan egiten ari den lana ezagutzea hainbat erlijio-elkarterekin eta tokiko Caritas elkarrekin.
- Gure elizbarrutiko Caritasek finantzatuta dauden eta gauzatzen ari diren proiektuak ebaluatzea.
- Lankidetzaren proposamen berriak balioestea.

## Egoera orokorra

Haiti munduko Nazio Batuen Garapenerako Programaren Giza Garapenaren zerrendako azken postuetan dago. Haitiko ekonomia egoera kritikoa dago, azpiegiturak oso mugatuak dira, eta langabezia arazo kroniko bihurtu da.

Gutxi gorabehera, biztanleriaren % 70 txirotasunean bizi da, gehienek iraupeneko nekazaritzan egiten dute lan, eta etekin oso eskasa dute.

Herrialdean, gizartearen sakoneko arazo garrantzitsuena da desberdintasun izugarria dagoela gizonen eta emakumeen artean, eta gehiengo beltz kreole txirotuen eta gutxiengo mulatoen (% 1) artean; hain zuzen, azken hori da herrialdeko aberastasunaren ia erdiaren jabea.

Osasun-egoera oso eskasa da, ospitale gutxi daude eta gaizki prestatuak, behar bezala gaitutako profesional gutxi dago, eta ia ez dago osasun-arretarik. Herrialdea gainezkatuta dago, GIB- eta kolera-kasuek gora egin baitute 2010az geroztik. Besteak beste, utzikeriak, hirigintza-abandonoak eta higiene-faltak egoera larritu dute. Laburbilduz, hirietako eta herrietako higiene-faltak eta osasun-egoera larriak, lurrikarak eragindako migrazio-fluxuek eta batik bat, ur-eskasiak miseria-egoera orokortu izatea eragiten dute.

Horri guztiari 2010eko otsaileko lurrikaren tragedia gehitu behar zaio; haren ondorio dramatikoek iraun egiten dute gaur egun; nazioarteko hainbat herrialdek eta erakundek ahalegin handiak egin eta erantzun esanguratsuak eman arren, herrialdea etengabeko krisian dago.

Astebetean, hiru leku bisitatu ditugu: **Port-au-prince, Port de Paix eta Dortoka uhartea.**

### **Port-au-prince**

Hiriburuan, *Emilie de Villeneuve* gizarte-sustapenerako zentroa bisitatu dugu, Cazeaun. Zentro hori Salletar anaiek eta Castreseko Sortzez Garbiaren ahizpek eraiki dute. Zentro honetan, emakumeei arreta eskaintzen zaie. Emakume horietako gehienak bakarrik daude eta familia-zamak dituzte; zentroan, gaikuntza, prestakuntza eta laguntza eskaintzen diete. Zentroak bere ibilbideari ekin berri dio, eta hainbat lantegi mota eskaintzen ditu: brodatuak, artisautza, merkaturatzea eta gatazken konponketa. Osasun-programaren baitan, mutikoen eta neskatoen nutrizio-gutxiegitasunak hobetzen dituzte, batik bat. 120 emakume baino gehiago trebatu dituzte osasun-eragile gisa, eta eremu horretako parroketan lan egiten dute, familiei jarraipena egiten eta laguntzen, eta bereziki, haurrei.

Caritas Gipuzkoa elkarteak **213.000 €**-ko ekarpena egin du zentroa eraikitzeke eta abian jartzeko.

### **Port de Paix**

Salletar anaiek Port de Paixen duten ikastetxean alfabetatze-programa bat eskaintzen da inguruko 50 emakumerentzat eta babesa eskaintzen zaie 150 haurrei. Kasu honetan, gure laguntzak ura hornitzeko putzu bat eraikitzeke finantzaketa izan du ardatz, urik ez duten inguruko biztanleentzat. Caritas Gipuzkoa elkarteak **52.000 €**-ko ekarpena egin du proiektu honetan.

### **Dortoka uhartea**

Uharte hau herrialdearen ipar-ekialdean dago, 25.000 km<sup>2</sup>-ko hedadura du eta 40.000 pertsona inguruko biztanleria. Ekonomikoki, familiek atzerritik helarazten dituzten bidalketetatik bizi dira; gehienek, AEBetatik eta Kanadatik. Uharteak ez du ia urik, eta eskasak diren euriteen menpe daude. Gainera, egoera hori okertu egiten da ura biltegitratzeko sistema egokirik ez dutelako. Uhartean, Salletar anaiek bi proiektu dituzte martxan, tokiko Caritas elkartearekin elkarlanean.

Batetik, **25 etxebizitza eraikitzen** ari dira seme-alabak dituzten eta bakarrik dauden emakumeentzat. Lehenengo fasean, 25 etxebizitza eraikiko dira muturreko txirotasunean dauden emakumeentzat.

Bestetik, **ura garraiatuko da uharteko 5 puntutara**. Garraiobide-sistema bat eraikiko da uharteko 5 puntutara ura helarazteke, eta horrek bermatuko du biztanleek edateke uraren gutxieneke hornidura izateke.

Caritas Gipuzkoa elkarteak **69.000 €**-ko ekarpena egin du bi proiektu horietan.

Bisitatu diren proiektu horiez gain, 2010ean larrialdike proiektuak babestu ziren elizbarrutike Fort Liberte, Espainiako Caritas eta Hijas de la Caridad erakundeen bidez.

Caritas Gipuzkoa elkarteak bost urte hauetan **619.000 €** bidali ditu Gipuzkoarron elkartasunari esker. Hona Haitike kanpainaren laburpena (2010-2015).

Elizbarrutike Fort Liberte	Larrialdike	45.000 €
Karitatearen alabak*	Botikak erostek	50.000 €
Haitike Caritas	Larrialdike	200.000 €
Sortzez Garbiaren ahizpak	Gizarte-zentroa	213.000 €
La Salle Port de Paix	Ur-garraio bide	42.000 €
La Salle Dortoka uhartek	Ur-garraio bide eta etxebizitzak	69.000 €
<b>Guztira, 2010-2015 aldi</b>		<b>619.000 €</b>

\* Mutualiaren eta Tolosako Udalaren ekarpenak.







